**DEKRETUA**

Hitzarmena sinatzeko txosten Teknikoa aztertu ondoren, eta aintzat harturik Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza nagusia eta dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege orokorra.

Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andrea, Durangoko alkatea,

**ERABAKI DUT**

1. Hitzarmena sinatzea Durangoko udalaren eta SOLOKO ELARTEAREN artean, honako testu honekin:

DURANGOKO UDALAREN ETA SOLOKO ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

**BILDURIK**

Batetik, Alde batetik, Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andrea, Durangoko Udalaren izenean eta haren ordezkari gisa (IFK: P4803400C; helbidea: Barrenkale 17, 48200 Durango, Bizkaia), Alkate gisa, eta ekintzaren fede ematen duen Durangoko Udaleko Behin-behineko idazkaria, Ane Aldazabal Rodriguez andreak lagundurik.

Eta, bestetik, **Fernando María Lejarza Eguren** jauna, 72250691D NAN zenbakiduna, **SOLOKO ELKARTEA** elkartearen presidente moduan.

**DECRETO**

Visto el informe técnico justificativo de la procedencia de la firma de un Convenio, de acuerdo con lo indicado en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Durango y en la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

D.ª Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia, alcaldesa de Durango,

**HE RESUELTO**

1. Firmar un Convenio entre el Ayuntamiento de Durango y SOLOKO ELKARTEA con el siguiente texto:

CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO Y SOLOKO ELKARTEA

**REUNIDOS**

De una parte, D.ª Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia, en nombre y representación del Ayuntamiento de Durango, con CIF P4803400C y domicilio en Barrenkale, 17, 48200 Durango (Bizkaia), en calidad de Alcaldesa, asistida por la Secretaria Accidental del Ayuntamiento de Durango, Doña Ane Aldazabal Rodriguez, que da fe del acto.

Y de otra, representada por, **Fernando María Lejarza Eguren con D.N.I. 72250691D,** en su condición de presidente de la asociación **SOLOKO ELKARTEA**.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 16340573723244342401
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

**DIHARDUTE**

**Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia** andrea, Durangoko Udalaren izenean eta haren ordezkari gisa, Alkate gisa. **Ane Aldazabal Rodriguez** andreak, Udaleko behin-behineko idazkari eta **Fernando María Lejarza Eguren** jaunak, **SOLOKO ELKARTEA (G95973749),** elkarteko presidente eta berau ordezkatuz, aipatutako elkartearen zuzendaritza batzordearen akordioarekin bat etorriz.

**ACTÚAN**

Dª **Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia**, en nombre y representación del Ayuntamiento de Durango, en calidad de Alcaldesa. Doña **Ane Aldazabal Rodriguez**, en su calidad de Secretaria accidentaldel Ayuntamiento y Don **Fernando María Lejarza Eguren**, como presidente de **SOLOKO ELKARTEA (G95973749),** en nombre y representación de la misma, conforme al acuerdo de su junta directiva.

**AITORTU ONDOREN** batak besteari behar besteko gaitasun juridikoa hitzarmena aurrera eramateko.

**RECONOCIÉNDOSE** las capacidades jurídicas y de obrar necesarias y suficientes para el presente convenio, en la calidad con que actúan

**ADIERAZTEN DUTE:**

I.- **Durangoko Udalak** "Durangoko Merkatu Barria" proiektu estrategikoa bultzatzen du, udal-merkatua osorik eraldatzeko plana, zerbitzu anitzeko ikuspegiarekin, 2030eko ikuspegiarekin eta merkataritza, gastronomia, jasangarritasuna, digitalizazioa eta kultura batzen dituen ereduarekin.

II.- **SOLOKO ELKARTEA**ren helburua, beren estatutuen arabera, honako hau da: **"Tokiko nekazaritzako produktuen sustapena eta salmenta"**.

III.- Bi alderdiek egokitzat jotzen dute lankidetzarako esparru formal bat ezartzea, bi parteek partekatzen dituzten helburuak lortzeko.

**EXPONEN:**

I.- Que el **Ayuntamiento de Durango** impulsa el proyecto estratégico "Durangoko Merkatu Barria", un plan de transformación integral del mercado municipal, con enfoque multiservicio, visión 2030 y un modelo que aúna comercio, gastronomía, sostenibilidad, digitalización y cultura.

II. Que **SOLOKO ELKARTEA** tiene como fin fundacional, según su norma estatutaria, la **"Promoción y venta de productos agrícolas locales"**.

III.- Que ambas partes consideran oportuno establecer un marco formal de colaboración, en aras a la consecución del interés común.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 16340573723244342401
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

Horrexegatik, ondorengo lankidetza-hitzarmena izenpetzen dute, jarraian aipatzen diren baldintzak betetzen dituena:

Es por lo que formalizan el presente convenio de colaboración, que contiene las siguientes claúsulas:

**BETEBEHARRAK:**

**CLÁUSULAS:**

**Lehena.- DURANGOKO UDALAK HARTZEN DUEN KONPROMISOA.-**

Durangoko Udalak, 2026an, bai bere aurrekontuan, bai Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, hitzarmen bat jasotzen du SOLOKO ELKARTEAREKIN. Hitzarmen horrek 10.000 (HAMAR MILA) euroko dirulaguntza emango du 81.4314.48101 partidaren kontura.

**Primera.- COMPROMISO ASUMIDO POR EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO.-**

El Ayuntamiento de Durango recoge en 2026, tanto en su presupuesto como en el Plan Estratégico de Subvenciones un Convenio con SOLOKO ELKARTEA que subvencionará con 10.000 (DIEZ MIL) euros con cargo a la partida 81.4314.48101.

**Bigarrena.- SOLOKO ELKARTEA ELKARTEAK HARTZEN DUEN KONPROMISOA.-**

SOLOKO ELKARTEAk Durangoko Udalaren aurrean hartzen dituen konpromisoak betetzeko erabiliko du dirulaguntza finalista.

Soloko Nekazal Elkartea, Durangaldeko hamar ekoizlez osatuta dagoen taldea da. Hauetako bost Durangoko Merkatuan parte hartzen dute aspalditik. Horregatik, Soloko Elkartea elkarte egokia da merkatuan dinamizazio-jarduerak programatzeko.

SOLOKO elkarteak 2026an honako jarduera hauek egiteko konpromisoa hartzen du:

**Segunda.- COMPROMISO ASUMIDO POR SOLOKO ELKARTEA.-**

La subvención de carácter finalista será destinada por SOLOKO ELKARTEA al cumplimiento de los compromisos que asuma frente al Ayuntamiento de Durango.

Soloko Elkartea es una asociación formada por diez Productores del Duranguesado. Cinco de ellos participan desde hace tiempo en el Mercado de Durango. Por ello, Soloko Elkartea es una asociación idónea para programar actividades de dinamización en el mercado.

La asociación “SOLOKO” se compromete a desarrollar a lo largo del 2026, las siguientes actividades:



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 16340573723244342401
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

**Ekoizle gonbidatua**

Merkatuan parte hartzen ez duten inguruko beste baserritar/ekoizle batzuk gonbidatzea planteatzen da. Helburu bikoitzarekin: Lehenik eta behin, baserritarrek ezagutu dezatela eta gonbidatu ditzatela merkatua etorkizuneko salmenta-puntu gisa baloratu dezaten eta, horrela, Merkaturako ekoizleen presentzia handiagoa lor dezaten. Bigarrenik, herritarrek merkatuan ez dauden beste produktu batzuk ezagutzeko aukera izatea. Jarduera bi formatutan egingo da: A formatuan (osteguna), B formatuan (larunbatetan).

**Sukaldaritza tailerrak**

Merkatua saltzaile, ekoizle eta kontsumitzaileen topagunea da. Merkatuaren funtsa gastronomia da, sukaldaritza, kalitatezko produktuak eskuratzeko gunea, gero mila modutan dastatzeko.

Beraz, sukaldaritza-tailerrak ezinbestekoak dira, bai sasoiko produktuekin eta produktu autoktonoekin errezetak ikasteko, bai kontsumo-ohitura osasungarriak lantzeko.

Show cooking horiek Durangoko Merkatuaren benetako baldintzetara egokitu behar dira, bai eta elikagaien segurtasunaren arloko eskakizunetara ere. Hori dela eta, ke-irteerarik behar ez duten elikagaiak prestatzeko eta manipulatzeko teknikak erabili beharko dituzte dagokion elikagai-

**Productor invitado**

Se plantea invitar a otros baserritarrak/productores de la zona que no suelen participar en el Mercado. Con un doble objetivo: En primer lugar que los baserritarrak conozcan el mercado e invitarles para que lo valoren como futuro punto de venta y lograr así una mayor presencia de productores para el Mercado. En segundo lugar, que los ciudadanos tengan la oportunidad de conocer otros productos que de otra manera no están en el Mercado. Esta actividad se realizará en dos formatos; Formato A (jueves), Formato B (sábados).

**Sukaldaritza tailerrak**

El mercado es el punto de encuentro entre vendedores, productores y consumidores. La esencia del mercado es la gastronomía, la cocina, un espacio para adquirir productos de calidad para luego degustarlos de mil maneras.

Por lo tanto, se hacen imprescindibles los talleres de cocina, tanto para aprender recetas con productos de temporada y autóctonos, como para trabajar los hábitos de consumo saludables.

Dichos show cookings deben adaptarse a las condiciones reales del Mercado de Durango, así como a las exigencias en materia de seguridad alimentaria, por lo que deberán realizarse mediante técnicas de preparación y manipulación de alimentos que no requieran de salida



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 16340573723244342401
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

manipulatzailearen txartela duten pertsonek.

de humos, por personas que cuenten con el correspondiente carnet de manipulador de alimentos.

Show cooking-ak eta erakustaldiak egitea planteatzen da, pertsona kualifikaen eskutik, sasoiko produktuak, prestatzeko modua, elikadura, nekazaritza, abeltzainak eta arrainak ezagutarazteko topagune bat sortzeko. Larunbatetan 10:00etatik 12:00etara.

De esta manera, se plantea la realización de show cookings y exhibiciones, de la mano de personas cualificadas, con objeto de crear un punto de encuentro para dar a conocer los productos de temporada, su forma de preparación, alimentación, agricultura, ganaderos y pescados. Sábados de 10.00 a 12.00.

**Partaidetza-tailerrak**

Sukaldaritzako gai zehatzekin lotutako partaidetza-sukaldaritzako tailerrak prestatuko dira: ke-irteerarik behar ez duten sukaldaritza-tailerrak, dagokion elikagai-manipulatzailearen txartela duten pertsona kualifikatuek emandakoak. Ostegunetan 18:00etatik 20:00etara.

**Talleres participativos**

Se prepararán talleres de cocina participativos relacionados con temas culinarios concretos; talleres de cocina que no precisen de salida de humos e impartidos por personas cualificadas con el carnet de manipulador de alimentos correspondiente. Jueves de 18.00 a 20.00.

**Maiztasuna**

Jardueren egutegia Soloko Elkarteak ezarriko du, Durangoko Udalarekin koordinatuta.

**Periodicidad**

El calendario de actividades será establecido por Soloko Elkartea en coordinación con el Ayuntamiento de Durango.

**Edukiera eta erreserbak**

Jarduerak herritar guztientzat izango dira, aldez aurretik erreserbarik egin gabe. Kasu batzuetan (ostegunetako tailerretan, adibidez) 20-30 laguneko kupoa egongo da, edukiera bete arte.

**Aforo y reservas**

Las actividades serán abiertas a toda la ciudadanía, sin reserva previa. En algunos casos (talleres de los jueves por ejemplo) habrá cupo de 20-30 personas, hasta completar aforo.

**Solokoren lidergoa**

**Liderazgo de Soloko**



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 16340573723244342401
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

Soloko Elkarteak konpromisoa hartu du jarduerak bateratu eta jakinarazteko eta merkatuko beste postuak eta baserritarrak parte hartzera gonbidatzeko.
Konpromisoa hartzen du programazioa egiteko merkatuko postuak irekitzeko ordutegiak kontuan hartuta, eta, ahal den guztietan, beste postuen proposamen osagarriak sartzeko aurreikusitako programazioan.

Soloko Elkartea se compromete a poner en común y comunicar las actuaciones e invitar a participar a los otros puestos del mercado y a los baserritarrak.
Se compromete a realizar la programación teniendo en cuenta los horarios de apertura de los puestos del mercado y, siempre que sea posible, introducir las propuestas complementarias de los otros puestos en la programación prevista.

**Materialaren babesa**
Durangoko Udalak aurreikusitako jarduerak egiteko ematen dion materiala behar bezala erabiltzeko, behar bezala kontserbatzeko eta zaintzeko konpromisoa hartzen du.

**Custodia del material**
Se compromete al buen uso, correcta conservación y custodia del material que le sea facilitado por el Ayuntamiento de Durango para la realización de las actividades previstas.

**Merkatuaren marka berria**
Konpromisoa hartzen du, Durangoko Udalarekin batera eta merkatuaren marka berriaren pean, merkatuan antolatutako jarduera guztiak zabaltzeko eta sustatzeko, eta, Durangoko Udalarekin batera, behar diren aurkezpenetan, inaugurazioetan, prentsaurrekoetan edo prentsa-oharretan parte hartzeko, horiek guztiak batera eta argazki eta guzti egingo baitira.

**Nueva marca del mercado**
Se compromete a difundir y a promocionar, conjuntamente con el Ayuntamiento de Durango y bajo la nueva marca del mercado, todas las actividades organizadas en el Mercado y a participar, junto con el Ayuntamiento de Durango en las presentaciones, inauguraciones, ruedas de prensa o notas de prensa, que sean precisas, que se realizarán en conjunto y con foto.

**Euskara**
Iragarkiak, oharrak eta gainontzeko komunikazioak euskaraz edo hizkuntza ofizial bietan joan behar dira. Gauza bera egin behar dute komunikazioarekin, bai

**Euskara**
Redactar y dar a conocer en euskera o en las dos lenguas oficiales los anuncios, avisos y demás comunicaciones que publiquen,



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 16340573723244342401
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

idatzizkoa, bai ahozkoa. Bi hizkuntzak erabiltzen direnean, euskara lehenetsiko da.

debiendo proceder de igual manera con la comunicación sea oral o escrita. Si se utilizaran ambas lenguas, se priorizará el uso del euskera.

**Berdintasuna**

Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista bermatzea sortzen diren dokumentu eta euskarri guztietan.

Antolatzen diren jarduera guztietan, emakumeei berdintasun-baldintzetan sartzeko aukera ematea eta emakumeen parte-hartze aktiboa sustatzea.

**Igualdad**

Garantizar un uso no sexista de todo tipo de lenguaje e imágenes en la totalidad de los documentos y soportes que se produzcan.

Posibilitar, en todas las actividades que se organicen, el acceso de las mujeres en condiciones de igualdad y promover la participación activa de las mismas.

**Erantzukizun zibila**

Erantzukizun zibilaren asegurua sinatuko du 300.000 eurogatik, eta kontratatu duen polizaren kopia helaraziko dio Udalari ordaindu izanaren egiaztagiri modura.

**Responsabilidad civil**

Se compromete a suscribir un seguro de Responsabilidad Civil que cubra responsabilidades por importe 300.000 euros y remitir al ayuntamiento una copia de la póliza contratada con justificante de su abono.

<u>Hirugarrena.-</u> **Honako hitzarmenean aurreikusten diren kantitateak kobratu ahal izateko honako baldintzak bete beharko dira:**

1. Legez elkarte moduan eratuta egotea.

2. Irabazi asmorik ez izatea eta ekonomikoki edo instituzionalki irabazizko erakundeen mende ez egotea.

3. Udalaren diru-laguntzak aurrez jaso diren kasuetan, emakida horretatik eratorritako betebeharretan egunean egotea.

<u>Tercera.-</u> **Será requisito previo para el cobro de las cantidades objeto de convenio el cumplimiento de los siguientes requisitos:**

1. Estar legalmente constituidas como Asociación.

2. Carecer de fines de lucro y no depender económica o institucionalmente de entidades lucrativas.

3. Estar al corriente, en el caso de haber recibido subvenciones de este Ayuntamiento con anterioridad en el cumplimiento de las obligaciones contraídas por tal concesión.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 16340573723244342401
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

4. Zerga, Gizarte Segurantza eta Durangoko Udaleko zerga betebeharren betekizunean egunean egotea.

4. Estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social y de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Durango.

5. Elkartea korporazioarekiko zerga betebeharretan egunean dagoela hartuko da ekitaldian zorrik eta zerga isunik ez duenean; horiek atzeratuta, zatikatuta edo haien exekuzioa bertan behera utzita dagoen kasuetan salbu. Egiaztapen horiek Udal Diruzaintzak ofizioz gauzatuko ditu

5. Se considerará que la asociación está al corriente de las obligaciones tributarias con esta Corporación cuando no mantenga deudas y sanciones tributarias en período ejecutivo, salvo que se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida. Tales comprobaciones se realizarán de oficio por la Tesorería Municipal.

6. Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan jasotako inolako debekuetan sartuta ez egotea. Artikuluak erreferentzia egindako debekuetan sartuta ez egotearen egiaztapena diru-laguntza ematen duen organoaren aurreko aitorpen arduratsuaren bidez egingo da.

6. No estar incurso en ninguna de las causas de prohibición contendidas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones. La acreditación de no estar incursos en las prohibiciones a que se refiere este artículo se realizará mediante declaración responsable ante el órgano concedente de la subvención.

**Laugarrena.- Hitzarmenaren onuradunaren betebeharrak.**

Elkarteak honako betebehar orokorrak izango ditu:

1. Diru-laguntza ematea oinarritu zuen helburua betetzea, proiektua egikaritzea, jarduera gauzatzea edo jarrera hartzea.

2. Durangoko Udalaren aurrean diru-laguntza ematea edo hartaz gozatzea

**Cuarta.- Obligaciones de la beneficiaria del convenio.**

Serán obligaciones generales de la Asociación, las siguientes:

1. Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamentó la concesión de la subvención.

2. Justificar ante el Ayuntamiento de Durango el cumplimiento de los



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 16340573723244342401
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

zehazten duten baldintzak eta eskakizunak betetzen direla, jarduera gauzatzen dela eta helburua betetzen dela justifikatzea.

requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

3. Udal organoek gauzatu beharreko egiaztapen-jardueren mende jartzea, aurreko ekintzen jardueran eskatutako informazio guztia ekarriz.

3. Someterse a las actuaciones de comprobación, a efectuar por los órganos municipales, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

4. Udalari diru-laguntza jasotako jarduerak finantzatzen dituzten bestelako diru-laguntzen, laguntzen, diru-sarreren edo baliabideen berri ematea. Jakinarazpen hori ezagutu bezain pronto gauzatuko da eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioaren justifikazioaren aurretik.

4. Comunicar al Ayuntamiento la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

5. Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren aurrean egunean zaudela eta Foru Ogasunarekin atzeratuta, zatikatuta edo exekuzioa bertan behera utzitako zor edo zerga-isunik ez izatea ziurtatzea.

5. Acreditar que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, así como no mantener con la Hacienda Foral deudas o sanciones tributarias que se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.

6. Udal Ogasunarekin zorrik ez dagoela ziurtatzea; alderdi hori udal diruzaintzak igorritako ziurtagiriaren bidez egiaztatu ahal izango da eta udalak ofizioz egiaztatu ahal izango du. Epea betetako zorraren, zor likidoaren edo zor galdagarriaren ondorioz, onuraduna zorduna denean, udalak

6. Acreditar que no existe deuda pendiente con la Hacienda Municipal, extremo que se podrá acreditar mediante certificación expedida por la tesorería municipal, si bien el Ayuntamiento podrá comprobarlo de oficio. Cuando el beneficiario sea deudor con motivo de una deuda



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 16340573723244342401
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

konpentsazioa hitzartu ahal izango du.

vencida, líquida o exigible, el Ayuntamiento podrá acordar la compensación.

7. Kontabilitateko liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako dokumentuak kasu bakoitzean onuradunari aplikagarri zaion merkatuko eta sektoreko araudiak eskatutako baldintzetan behar bezala ikuskatuta izatea, baita deialdiko oinarri arautzaileek eskatutako kontabilitateko egoera eta erregistro espezifikoak ere, egiaztapen- eta kontrol-gaitasunen behar bezalako egikaritzea bermatzeko.

7. Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de la convocatoria, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

8. Jasotako funtsen aplikazioaren frogagiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol-ekintzen helburu izan daitezkeen heinean.

8. Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

9. Oinarrietan aurrez ikusitako moduetan diru-laguntzak jaso ditzaketen edozein motatako programa, jarduera, inbertsio edo jardueren finantzazioaren izaera publikoko publizitate egokia emango dute. Horretarako Durango Udalaren logoa sartuko du hitzarmen honetan aurreikusitako jarduera guztietan.

9. Deberán dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de programas, actividades, inversiones o actuaciones de cualquier tipo que sean objeto de subvención mediante la inclusión del logotipo del ayuntamiento de Durango en todas las actividades previstas en este convenio.

10. Diru-laguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta haren garapen-araudian jasotako kasuetan funtsen itzulpena gauzatzea.

10. Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y su normativa de desarrollo.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 16340573723244342401
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

**Bosgarrena.- Justifikazioa eta diru-laguntzaren ordainketa.**
Kontu justifikatiboa aurkeztu beharko da non diruz lagundutako jarduera bakoitzak izan dituen gastuak eta dirusarrerak agertzen diren eta horrekin batera:

**1.** Diru-laguntzarekin batera doan justifikazioan zerrendatzen diren faktura GUZTIAK aurkeztu behar dira. Faktura baliodunak onuradunaren izenean egin behar dira, eta ez beste erakunde baten izenean. Fakturek ordaindu izanaren egiaztagiria eraman behar dute.

**2.** Elkarteak udal diru-laguntza justifikatzeko aurkeztu behar duen gutxieneko zenbatekoa 10.000 €-koa da.

- **Azalpen-memoria labur bat** aurkeztu beharko da (gehienez 10 orrialde), **jarduera bakoitzeko** honako datu eta adierazle hauek jasoko dituena:

- Jardueraren izena eta dekribapen txikia.
- Eguna eta ordutegia.
- Parte-hartzaileen kopurua.
- Lortutako helburuak edo, hala badagokio, izandako zailtasunak.
- Jardueraren argazkia.
- Jardueraren gastuen fakturak.

**Quinta.- Justificación y pago de la subvención.**
Se debe justificar aportando cuenta justificativa donde consten todos los gastos y todos los ingresos asociados a las actividades objeto de subvención, así como:

**1.** TODAS las facturas enumeradas en la cuenta justificativa que acompaña a la subvención. Las facturas válidas deben ser emitidas a nombre de la beneficiaria y no de otra entidad. Las facturas deben ir acompañadas de su justificante de abono.

**2.** El montante mínimo de gasto que la asociación deberá justificar para el cobro íntegro de la subvención municipal es de 10.000 €

- Se deberá presentar una **breve memoria** explicativa (máximo 10 páginas) que incluirá, **por cada actividad,** los siguientes datos e indicadores:

- Nombre de la actividad y breve descripción.
- Fecha y horario.
- Número de personas participantes.
- Objetivos alcanzados o, en su caso, las dificultades habidas.
- Fotografía de la actividad.
- Facturas correspondientes a la



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 16340573723244342401
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

actividad.

**<u>Seigarrena</u>.- Justifikaziorako epea.**
Justifikazioa egiaztatzeko dokumentazioa 2026ko otsailaren 28a baino lehen aurkeztuko da.

**<u>Sexta.-</u> Plazo para la justificación.**
La documentación acreditativa de la justificación se presentará antes del 28 de febrero de 2027.

**<u>Zazpigarrena</u>. Dokumentazioaren azterketa.**
Diru-laguntzaren aplikazioaren frogagiria udaleko Turismo eta Merkataritza arloak jasoko du eta hark aurkeztutako dokumentazioa ere.
Deialdi honetan eskatutako dokumentazioa osatu eta Turismo eta Merkataritzako arloaren adostasunari buruzko txosten teknikoak egin ondoren, dirulaguntzaren justifikazioari buruzko proposamena egingo da, eta proposamena eman zuen organoari bidaliko zaio, ados dagoen edo ez adierazteko.
Ekarritako egiaztagiriekin erabateko desadostasuna edo desadostasun partziala egonez gero, edo justifikatzeko epea igarota gauzatu ez balitz, hartzaileari eskatuko zaio 10 eguneko epean justifikazioa aurkezteko edo aurkeztutakoaren gabeziak edo akatsak zuzentzeko; hala egin ezean, diru-laguntza itzultzeko prozedura hasiko da, Diru-laguntzen Lege Orokorrean aurrez

**<u>Séptima.-</u> Examen de la documentación.**
La documentación justificativa de la aplicación de la subvención será recibida por el Área de Turismo y Comercio, quien la examinará.
Una vez completada la documentación exigida por la presente convocatoria y emitido informe técnico por el área de Turismo y Comercio acerca de su conformidad, se elaborará propuesta en relación con la justificación de la subvención, que se remitirá al órgano que la concedió para su conformidad o disconformidad.
En el caso de que existiese disconformidad total o parcial con los justificantes aportados, o si, transcurrido el plazo de justificación no se hubiese procedido a la misma se requerirá al perceptor para que, en el plazo de 10 días, proceda a presentar la justificación o subsanar las omisiones y/o defectos de la justificación presentada, iniciándose



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 16340573723244342401
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

ikusitako zigor erregimenaren aplikazioa albo batera utzita, dagokionean.

en caso contrario, el procedimiento para el reintegro de la subvención, con independencia de la aplicación del régimen de sanciones previsto en la Ley General de Subvenciones, si procediese.

Diru-laguntza ez da justifikatutzat hartuko, hura eman duen organoa alde agertzen ez den arte.

No se dará por justificada la subvención, en tanto el órgano que la concedió no se pronuncie favorablemente sobre la misma.

**Zortzigarrena.- Aldaketa eta ezeztatzea.**
Diru-laguntza emateko kontuan hartutako edozein baldintzaren aldaketa, beste administrazio, erakunde publiko edo pribatuek emandako aldi bereko laguntzen edo diru-laguntzen eskurapena barne, Durangoko udalak ezagutu beharko du gertatzen den unean, eta horrek emakidaren ebazpenaren aldaketa ekarri ahal izango du.

**Octava.- Modificación y revocación.**
Cualquier modificación de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, incluida la obtención concurrente de ayudas o subvenciones otorgadas por otras administraciones o entes públicos o privados, que deberá estar en conocimiento del Ayuntamiento de Durango, en el momento en que se produzca, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión.

Kasu horretan, diru-laguntzaren onuradunak organo emaileari eskatu ahal izango dio emakidaren ebazpena aldatzeko, exekuzio eta justifikazio-epeak barne, baina diru-laguntzaren edo laguntzaren helmuga edo xedea inolaz ere ezingo da aldatu.

En este caso el beneficiario de la subvención podrá solicitar del órgano concedente de la misma la modificación de la resolución de la concesión, incluidos los plazos de ejecución y justificación, sin que en ningún caso pueda variarse el destino o finalidad de la subvención o ayuda.

Aldaketaren eskaerak behar bezala arrazoituta egon beharko du, aldaketa eragindako baldintza agertu bezain pronto aurkeztuko da eta finkatutako justifikazio epea amaitu aurretik.

La solicitud de modificación deberá estar suficientemente justificada, presentándose de forma inmediata a la aparición de las circunstancias que lo motiven y con antelación a la finalización del plazo de justificación establecido.

Diru-laguntzaren edo laguntza publikoaren aldaketa adosteko egintza organo emaileak onetsiko du, aldez

El acto por el que se acuerde la modificación de la subvención o ayuda pública será adoptado por el órgano



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 16340573723244342401
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

aurretik dagokion espedientea bideratuta, eta hari gehituko zaizkio dagozkion txostenak eta, kasuan kasu, onuradunaren eskaera edo alegazioak.

concedente de la misma, previa instrucción del correspondiente expediente al que se incorporarán los informes pertinentes y, según el caso, la solicitud o las alegaciones del beneficiario.

Deialdiko baldintzaren bat bete ezean, emandako diru-laguntzaren ezeztatzea gertatuko da eta ordaindutako zenbatekoak itzuliko dira.

En caso de incumplimiento de alguna de las condiciones de la convocatoria procederá la revocación de la subvención concedida y el reintegro de las cantidades abonadas.

**Bederatzigarrena.- Ez-betetzeen ondorioak.**

**Novena.- Efectos de los incumplimientos.**

Ezarritako baldintzak ez betetzeak edo garaiz kanpo betetzeak, xede publikoa gauzatzeko epea erabakigarria denean, eskubidearen erabateko galera eta, kasuan kasu, itzulketa ekarriko du.

El incumplimiento de cualquiera de las condiciones impuestas o su cumplimiento extemporáneo cuando el plazo fuera determinante para la consecución del fin público perseguido será causa de pérdida total del derecho y, en su caso, de reintegro.

Baldintzak partzialki betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat baino ez gauzatzeak eta zalantzarik gabe onuradunaren konpromisoa betetzera daraman asmoa ziurtatzen denean, betiere, edo ezinbesteko kasuetan, diru-laguntza partzialki ordaintzea edo, kasuan kasu, partzialki itzultzea ekarriko du, totalari dagokionez gauzatutako jardueraren proportzioa aplikatuz.

El cumplimiento parcial de las condiciones o la realización en plazo de sólo una parte de la actividad, siempre que se acredite una actuación del beneficiario inequívocamente tendente a la satisfacción de los compromisos o se debiera a fuerza mayor dará lugar al pago parcial de la subvención o, en su caso, al reintegro parcial aplicando la proporción en que se encuentre la actividad realizada respecto del total.

Udaleko zerbitzuek egiaztapena edo finantzen kontrola gauzatzean justifikatutako gastu guztien edo zati baten ordainketa falta atzemango balitz, diru-laguntza kobratu ondoren, itzultzea eskatuko da proportzionaltasun printzipioa aplikatuz, eta horren ondorioetarako diru-laguntza

Si en la realización de una comprobación o control financiero por los servicios municipales se pusiera de manifiesto la falta de pago de todos o parte de los gastos justificados, después de cobrada la subvención, se exigirá el reintegro aplicando el principio de proporcionalidad, a cuyo



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 16340573723244342401
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

itzulgarritzat joko da ordaindu gabeko gastuen proportzioan.

efecto se considerará reintegrable la subvención en proporción a los gastos impagados.

**Hamargarrena.- Diru-laguntzaren itzulketa.**
Egokia izango da jasotako zenbatekoen itzulketa eta berandutze-interesak eskatzea diru-laguntza ordaintzetik itzulketaren jatorria hitzartu arte, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorreko 37. artikuluan adierazitako kasuetan.

**Décima.- Reintegro de la subvención.**

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro en los casos señalados en el artículo 37 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

**Hamaikagarrena.- Erantzukizuna.**
Durangoko Udalak ez du inongo erantzukizunik hartuko bere gain Durangoko SOLOKO ELKARTEA-ren kudeaketari dagokionez, ezta ere Elkarteak, hitzartutako jarduerak burutzeko, kontrataturiko enpresak eta profesionalak burutzen dituzten jarduera edo eskaintzen dituzten zerbitzuen gainean. Era berean, Udalak ez du erantzukizunik izango entitatearen harreman juridikoetan edota pertsona fisiko edo juridikoekin formalizatu behar duen kontratuetan.

**Undécima.- Responsabilidad.**
El Ayuntamiento de Durango no asume ningún tipo de responsabilidad por la gestión de SOLOKO ELKARTEA ni por los actos realizados y servicios prestados por la misma y las empresas y profesionales contratados por la misma para el desarrollo de las actividades convenidas, así como en las relaciones jurídicas y los contratos que deba formalizar la Entidad y las personas, sean físicas o jurídicas, suministradoras.

**Hamabigarrena.- DIRU LAGUNTZA ORDAINTZEKO ERA.**

Durangoko Udalak honela ordainduko dio SOLOKO ELKARTEA elkarteari. %80a hitzarmena indarrean sartzen den hilabeteko azken egunean. Gainerako %20a, diru laguntza eman izanagatiko helburua bete ondoren eta gastua justifikatu ostean ordainduko da. Justifikatzerako orduan hitzarmen honetan hartutako konpromisoak bete

**Decimosegunda.- FORMA DE PAGO DE LA SUBVENCIÓN.**

El pago de la subvención por el Ayuntamiento de Durango a SOLOKO ELKARTEA se realizará de la forma siguiente: 80% el último día del mes a la entrada en vigor del convenio. El 20% restante se abonará tras el cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y una vez justificado el gasto, así como la



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 16340573723244342401
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

direnei buruzko dokumentazio egiaztagarria ere aurkeztu behar da. Ez da fidantzarik jarri behar izango administrazioak aurreraturiko diru-kopuruarengatik.

documentación acreditativa de la materialización de los compromisos adquiridos en este convenio. No será necesario afianzar los importes adelantados por la Administración.

**Hamahirugarrena.- IRAUPENA.-**

Hitzarmena bertan behera geldituko da 2026eko abenduaren 31n.

**Decimotercera.- DURACIÓN.-**

El presente convenio quedará extinguido el 31de diciembre de 2026.

**Hamalaugarrena.- IRAUNGITZEA.**

SOLOKO ELKARTEA elkarteak hartu dituen konpromisoak betetzen ez badira, lankidetza-hitzarmena bertan behera geldituko da, eta jasotako diru laguntza itzuli beharko da, halaxe ezartzen baitute diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 41etik 43ra arteko artikuluek.

**Decimocuarta.- EXTINCIÓN.**

El incumplimiento de los compromisos adquiridos por SOLOKO ELKARTEA producirá, además de la extinción inmediata del convenio de colaboración, la obligación de reintegrar el importe de la subvención, total o parcialmente, de acuerdo con lo establecido en los artículos 41 a 43 de la Ley 38/2.003, General de Subvenciones.

**Hamabosgarrena.- BATERAGARRITASUNA.-**

Diru-laguntza hau bateragarria da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jaso daitekeenekin. Nolanahi ere, eta gain-finantzaketa izan ez dadin, onuradunak, gastua justifikatzerako orduan, beste erakundeetatik jaso izan dituen diru-laguntzen egiaztagiriak aurkeztu behar ditu.

**Decimoquinta.- COMPATIBILIDAD.-**

La presente subvención es compatible con otras procedentes de cualquier organismo público o privado. No obstante, y en aras de que no haya sobrefinanciación, el beneficiario, en el momento de proceder a la justificación del gasto, deberá presentar documentación acreditativa de las subvenciones percibidas a través de otros organismos.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 16340573723244342401
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

**Hamaseigarrena.- ARAUDI OSAGARRIA.** Deialdi hau 2026an dago jasota Durangoko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan eta aurtengo aurrekontuan ere.

Hitzarmen honek ezartzen ez duenari dagokionez, honako lege testuak hartuko dira aintzat: Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza; diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua eta toki erregimeneko araudi bateragarria.

**Decimosexta.-NORMATIVA COMPLEMENTARIA**

La presente convocatoria está recogida en 2026 en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Durango así como en el presupuesto para el año en curso.

En lo no dispuesto en este convenio se estará a lo indicado en los siguientes textos legales: Ordenanza reguladora de subvenciones y ayudas del Ayuntamiento de Durango; Ley 38/2003 General de Subvenciones; RD 887/2006 y normativa de régimen local concordante.

Adostutakoaren lekuko, partaideek honako hitzarmen honen bi ale izenpetu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Y para que conste en señal de conformidad, afirmándose y ratificándose en el contenido del presente documento, que prometen cumplir leal y fielmente, lo firman por duplicado ejemplar a un sólo efecto, en el lugar y fecha arriba indicados

**ETA EBATZI DUT**

2.Gastua onartzea ADO fasean eta hitzarmenean aipatzen den kopuru honegatik: **10.000** euro. Ordainketa 81.4314.48101 diru-partidaren kargura egingo da.

3. Ordainketa hitzarmenean aipatzen den eran egingo da.

4.Hitzartutako dirulaguntzaren onuradunaren betebeharrei dagokienez, dirulaguntza justifikatzeko epeei dagokienez eta justifikatu gabeko dirukopuruak itzultzeari dagokienez, hitzarmenean ezartzen dena hartuko da

**Y HE RESUELTO**

2. Aprobar el gasto en fase ADO por el importe del Convenio, y que asciende a **10.000** euros, con cargo a la partida 81.4314.48101.

3. Que los pagos del Convenio se realicen de acuerdo con lo establecido en el propio Convenio.

4. Que en materia de obligaciones del beneficiario de la subvención conveniada, de plazos para justificar la subvención y en materia de reintegros de cantidades no justificadas se estará se estará a lo indicado en el propio



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 16340573723244342401
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

kontuan eta, halaber, dirulaguntzen ordenantza arautzaileak zehazten duena.

Convenio y, supletoriamente, en lo indicado en la mencionada Ordenanza Reguladora de subvenciones.

Alkate andreak agindu eta izenpetzen du, eta nik, Udaleko idazkari nagusia naizen honek, egiaztatu egiten dut.

Lo manda y firma la Alcalde, de todo lo cual yo, Secretaria/o General de la Corporación, doy fe.

Durango, 4 de junio de 2026

Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia
Alkate andrea

Elektronikoki izenpeturiko agiria
Documento firmado electónicamente

**Durango, 4 de junio de 2026**

Ane Aldazabal Rodriguez
Behin behineko Idazkaria
Secretaria accidental

Elektronikoki izenpeturiko agiria
Documento firmado electrónicamente



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 16340573723244342401
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**